

Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa: III. Eranskina

EMEKIN–Laguntza eta tutoretza

Urtea: 2023 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Enpresa sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa–proiektuei laguntza eta tutoretza emateko dirulaguntzak.

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

Pertsona onuradunak

Emakumeek sortutako enpresak, aldez aurretik bideragarritasun–plana EMEKINen dinamikaren barruan egin dutenak eta, gainera, laguntza–eskaera aurkezteko unean JEZen alta eman zutenetik 5 hilabete baino gehiago igaro ez direnak.

Diruz lagunduko diren jarduerak

Laguntza eta tutoretza [entitate homologatuen](#) bidez emango da, eta honako esparru hauek hartu ahal izango ditu:

- Kontabilitateko, liburuak edukitzeko, aholkularitza fiskaleko eta laneko jardueretan laguntzea.
- Enpresa–zuzendaritza eta kudeaketari buruzko aholkularitza.
- Jarduera juridikoak (jabetza intelektuala barne) eta aholkularitza DBLOn.
- Merkaturatzea, marketina eta komunikazioa: estrategiak, logotipoaren eta irudi korporatiboaren diseinua eta oinarritzko papergintza; diseinua, errotuluak eta katalogoak; publizitate–kanpainen diseinua (merkaturatzea).
 - Interneten posizionatzea.
 - Merkatu–azterketak.
- Iraunkortasuna eta ingurumena eta ekonomia zirkularra.

Enpresa sortzeko aholkularitza–zerbitzuak ematerakoan, proiektu bakoitzeko gehienez ere 25 orduko ordu–dedidazio hautagarria aurreikusten da laguntzarako eta tutoretzarako.

Dirulaguntzak emateko prozedura

Lehiarik gabekoa: dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio guztia bete izanaren arabera.

Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin

Bete behar diren epeak:

Garrantzitsua: Dirulaguntza–eskaera aurkezten duen momentuan EJZn alta eman zutenetik 5 hilabete baino gehiago igaro ez direnak

- **2022ko azken hiruhilekoan EJZn alta emandako enpresak:**
Eskaera egiteko epea: 2023ko apirilaren 28an, 12: 00etan.
Gauzatzeko epea: 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era.
Justifikatzeko epea: 2023ko uztailaren 14a.
- **2023an EJZn alta emandako enpresak:**
Eskaera egiteko epea: 2023ko abenduaren 15ean, 12:00etan.
Gauzatzeko epea: 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko apirilaren 30era.
Justifikatzeko epea: 2024ko maiatzaren 7a.

Araudi aplikagarria

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak](#). Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen (2022ko uztailaren 04koa GAO, 126 zk).

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren 2023ko deialdia](#). Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 31an erabakiz onartu zen (2023ko otsailaren 16koa GAO, 32 zk).

Kofinantzaketa

Programak EGFen (Europako Gizarte Funtsa) kofinantzaketa komunitarioa (% 50) du “EGF zure etorkizunean inbertitzen du goiburuz

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitasuna/emakumeekintzailea>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoak: 943–112287
- Kudeaketa Administrazioak: 943–112218

Emaila: sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus